XXII. DOMEKEA

URTEAN ZEHARREKO - A-

SARRERAKO OHARKIZUNA

Egunon, guztioi, eta ondo etorriak Meza santu honetara.
Jauna dogu on guztien iturburua. Halantxe dino Eleizeak domeka honetako otoitzean. Eukaristia honetan, Jaunagana hurreratu gaitezan, bere ontasunez bete gagizan eta gero, geure bitartez, ontasun hori mundu guztian zabaldu daiten.
Zutunduta, sarrerako kantua abestuz, emon deiogun hasierea Meza santuari.

Aita baten semeok / sinismen bakar bat dogunok /
anai artean batu garanok /
kantuz gatoz / kantuz zugana, Jauna.

— Seme gara, bai, baina seme izaten ba ete dakigu?
Anai gara, bai, baina anai izaten ba ete dakigu?
Seme izatera, anai izatera, Jauna, heldu nahi dogu.

DAMU-OTOITZA

Senideok: isilune baten, geure hutsegite guztiak gogoratu daiguzan eta eskatu deiogun Jaunari bere parkamena:

- Jesus Jauna, behartsuekin errukituta mundura **e**torri zinana. ERRUKI, JAUNA.
- Jesus Jauna, gizon-emakumeon kurutzea o**nar**tu zenduana. KRISTO, ERRUKI.

- Jesus Jauna, geure kurutzea lepoan hartuz, Zeuri jarraitzeko e**sa**ten deuskuzuna. ERRUKI, JAUNA.

HITZAREN LITURGIA

Jr 20, 7-9:

Gaurko lehenengo irakurgaiak Jeremias profetearen nahigabea agertzen deusku: alde batetik, bere herria maite dau; eta bestetik, ondamendia

gainera jatorkola herri horri Jaungoikoaren izenean iragarri beharrean aurkitzen da. Egoera horretan, isilik gelditzea erabagiten dau... baina Jaungoikoaren berbeak gehiago egiten deutso.

Erantzun-Salmoa: *"Zu zaitut, Jauna, ondasuna".*

Erm 12, 1-2:

San Paulok esango deusku Jaungoikoari zer eskeini behar deutsagun; eta kristau izateko, zelan bizi izan behar dogun.

Mt 16, 21-27:

Gaurko Ebanjelioan, Jesusek argi eta garbi berba egingo deusku, bere bidea zein dan azalduz: kurutzea, bizia emotea. Zutunduta goratu daigun Jauna, *Aleluia* abestuz.

JAINKO HERRIAREN OTOITZA

† Senideok: otoitz egin deiogun Jaungoiko Aitari, gizon-emakume guztien beharrizanak gogoan izanik:

- Eleizea egiten dogun kristinau guztion alde: Jesusen bideak onartuz, ingurukoen zerbitzari izan gaitezala. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.

- Barri Ona zabaltzeko eginkizuna daukenen alde: ez daitezala kikildu eta bakea ez dagiela galdu inguruan sortu daitekezan txartoesanakaitik eta egiten deutsezan irainakaitik. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.

- Gure gizartearen alde: bizitza errezaren tentazinoan ez daitela jausi eta giza-balioak zaintzen eta indartzen ahalegindu daitela. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.

.../..

- Jesusen Eukaristia ospatzeko alkartu garean guztion alde: eguneroko kurutzea sorbaldan hartzeko lotsarik eta nagirik ez dagigula izan. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.

† Jaungoiko Aita ona: begira erreguka daukazun herri honi eta emoiozuz zeure dohairik ederrenak. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

Jaunartzeko abestia

Hemen gaituzu, Jauna, ogiaren eske:
bizi behar ho**ne**tan ahuldu baikintezke.
Zure gorputz santua hartu nahi genduke.
Zu gabe bizi**tze**rik ezingo genduke.

Munduak behar badau eguzki-argia,
mendiko abe**re**ak iturri garbia,
orobat nahi badogu barruko bizia,
beharrezkoa **ja**ku zeruko ogia.

Jauna, zure grazia lagun dakigula
ogi hau jan da**gi**gun behar dan bezela.
Ez ahaztu txarrerako jarriak gauzela,
arren, zuzen ta **le**ial bizi gaitezela.

Oharrak: